

# EKIDE GROUPEn Kode etikoa eta jokabidekoa

Arrasaten, 2021/02/19an

## AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
1. SARRERA	4
2. XEDEA	4
3. APLIKAZIO EREMUA ETA BETETZEA	5
3.1. <u>APLIKAZIO EREMU SUBJEKTIBOA</u>	5
3.2. <u>EZAGUTZA ETA BETETZEA</u>	5
3.3. <u>ERANTZUKIZUN MAILA DESBERDINA</u>	6
3.3.1. <u>Behartutako Subjektu guztien erantzukizun orokorra</u>	6
3.3.2. <u>Besteen lana gainbegiratzen eta zuzentzen dutenen erantzukizun</u>	
Gehigarriak	6
4. EKIDE GROUP-EN BALIO ETIKOAK	7
5. PORTAERA ARAU OROKORRAK	7
5.1. <u>INTERES GATAZKA</u>	7
5.2. <u>KONFIDENTZIALTASUNA</u>	8
5.3. <u>JARDUERA POLITIKOA</u>	9
5.4. <u>LEGEKOTASUNAREN ERRESPETUA</u>	9
5.5. <u>INFORMAZIOA BABESTEA</u>	9
5.6. <u>ZINTZOTASUNA</u>	9
5.7. <u>GARDENTASUNA</u>	10
5.8. <u>LEHIA ASKEA</u>	10
6. JOKABIDE ARAU ESPEZIFIKOAK ERKIDE GROUP-EN HARREMANETAN	11
6.1. <u>HORNITZAILEEKIKO HARREMANAK</u>	11
6.2. <u>BEZEROEKIKO HARREMANAK</u>	11
6.3. <u>AKZIODUNEKIKO HARREMANAK</u>	12
6.4. <u>ADMINISTRAZIOAREKIKO, OGASUN PUBLIKOAREKIKO ETA GIZARTE</u> <u>SEGURANTZAREKIKO HARREMANAK</u>	12
6.5. <u>GOBERNUEKIKO ETA AGINTARIEKIKO HARREMANAK</u>	12
6.6. <u>GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUA</u>	12
6.7. <u>INGURUMENA</u>	13
6.8. <u>KAPITAL ZURIKETAREN PREBENTZIOA</u>	13
6.9. <u>ORDAINKETEI BURUZKO ARAUAK</u>	13
7. JOKABIDE ARAU ESPEZIFIKOAK BARRUKO HARREMANETAN	14
7.1. <u>LANGILEEN GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEA ETA LANGILEAK EZ DISKRIMINATZEA</u>	14
7.2. <u>LAN ESKUBIDEEN BERMEA</u>	14

7.3.	<u>LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA</u>	15
7.4.	<u>AKTIBOEN ETA BALIABIDEEN ERABILERA</u>	15
7.4.1	<u>Aktiboen erabilera</u>	16
7.4.2	<u>Bitarteko elektronikoen erabilera</u>	16
8.	<u>ARAUDIA BETETZEKO BATZORDEA (ABB) ETA BETETZE PENALAREN KOORDINATZAILEA</u>	16
8.1.	<u>ARAUDIA BETETZEKO BATZORDEAREN OSAERA ETA ESKUMENAK</u>	16
8.2.	<u>BETETZE PENALAREN KOORDINATZAILEA</u>	17
9.	<u>JOKABIDE KODEAREKIN LOTURA DUTEN GAIEI BURUZKO KOMUNIKAZIORAKO PROZEDURA OROKORRA</u>	18
10.	<u>ZEHAPEN PROZEDURA</u>	19
11.	<u>INDARRALDIA</u>	20

## 1. SARRERA

EKIDE GROUPEk konpromiso etiko irmoa adierazi du bere sorreratik, eta, bere ustez, konpromiso hori betetzeko modurik onena da barne arau eta prozedura eraginkorrak ezartzea, honetara zuzenduta:

- Bere jarduera balio eta arau deontologiko zorrotzen eta indarrean dagoen ordenamenduaren arabera garatzea.
- Jarduteko arauak eta kontroleko eta komunikazioko sistemak ezartzea, jarduera delituzko helburuetarako erabil ez dadin.
- Bere langile guztiek delituen prebentzioaren arloko politikak eta prozedurak betetzen dituztela bermatzea.
- Legezko betebeharrak zorrotz betetzea.

Etika eta Jokabide Kode hau ("**Kodea**" edo "**Jokabide Kodea**") arau eta protokoloen multzo bat da, eta EKIDE GROUPEn balioak eta kultura korporatiboa esplizitu eta ikusgarri egiteko balio behar du, bai eta haren jokabide jarraibideak bateratu eta indartzeko ere.

Kodea erreferentziatzeko tresna eskuragarria izan behar da, eta berori aplikatu behar zaien pertsonen jarduerak gidatzeko eta enpresa erantzukizuna eragin dezakeen edozein egoera detektatzeko eta prebenitzeko balio behar du.

Kode hori derrigor bete beharrekoa da, eta EKIDE GROUPEk betetzea exijitzeko erabateko eskumena dauka.

## 2. XEDEA

EKIDE GROUPEk enpresa barruan zein hirugarrenetik harremanetan izango duen jokabidea gidatu behar duten printzipioak, helburuak, balioak eta arauak ezartzea, enpresa jokabide zintzoa eta jarduteko jarraibide arduratsuak sendotzeko eta bultzatzeko, eta EKIDE GROUPEn balioak eta arauak jokabide arautu, ebaluagarri eta aurreikus daitezkeen jokabide gisa adierazita.

Gainera, eta bereziki, EKIDE GROUPEk garatutako jarduerak behar bezala kontrolatzeko protokolo eta betebeharrak jakin batzuk sartu dira Kode honetan, nolabaiteko erantzukizun penala eragin dezaketen portaerak prebenitzeko, detektatzeko eta zigortzeko.

### **3. APLIKAZIO EREMUA ETA BETETZEA**

#### **3.1. APLIKAZIO EREMU SUBJEKTIBOA**

Jokabide Kode honen ondorioetarako, EKIDE GROUP izango da EKIDE taldea osatzen duten sozietate guztiak, EKIDE SL horietatik nagusia izanik.

Jokabide Kode hau pertsona hauei aplikatuko zaie, fisikoak zein juridikoak izan:

1. EKIDE GROUP osatzen duten sozietate guztiak.
2. EKIDE GROUP osatzen duten sozietateetako administrazio organoko kideak.
3. EKIDE GROUP osatzen duten sozietateetako edozeinetan lan egiten duten zuzendari eta enplegatu guztiak.

Aurrerantzean, EKIDE GROUPen baliabide eta instalazioetako zuzendari, administratzaile, langile eta erabiltzaile horiei batera "**Behartutako subjektuak**" ere deituko zaie.

Behartutako Subjektuei Jokabide Kode hau benetan aplikatzeko, beharrezkoa izango da Behartutako Subjektuek berariaz onartzea EKIDE GROUP enpresarekin dituzten lan edo merkataritza kontratuen baldintzetan kodeak dituen ondorio guztiak, baldintzen aldaketak izan zein baldintzen osagarriak izan.

#### **3.2. EZAGUTZA ETA BETETZEA**

Behartutako Subjektu guztiek beren jarduerari, erantzukizunari eta lantokiari aplikatu beharreko lege arauak ezagutu eta bete behar dituzte, bai eta Kode hau bete eta betetzen lagundu ere. Horrez gain, behartuta daude edozein ez-betetze edo urraketa ezagutuz gero eta, bereziki, delitu izan daitezkeen portaerak ezagutuz gero, berehala jakinaraztera, Kode honetan ezarritako prozedurari jarraituta.

Jokabide Kode honen interpretazioari edo aplikazioari buruzko zalantza oro dagokion hierarkiako nagusi hurrenari jakinarazi beharko zaio, edo, hala badagokio, EKIDE GROUPEk bere Jokabide Kodearen ezagutza eta babesa zaintzeko izendatzen duen beste edozein pertsona edo instantziari.

EKIDE GROUPen duen posizioa edozein dela ere, inork ez du baimenik Behartutako Subjektu bati Jokabide Kode honetan ezarritakoa urratzeko eskatzeko. Beraz,

Ezein zuzendarik izango du jardunbide txar bat justifikatu nagusi hurren batek agindutakoa zela edo Jokabide Kode hau ezagutzen ez zuela esanez.

Etorkizunean EKIDE GROUPen sartuko diren pertsonak berariaz onartu beharko dute Jokabide Kodearen eduki osoa.

EKIDE GROUPEk beharrezko bitartekoak jarriko ditu Behartutako Subjektuen eskura, Jokabide Kode honetan jasotako jarduera printzipioak betetzeko eta errespetatzen laguntzeko, eta Behartutako Subjektuen artean behar besteko zabalkundea emateaz arduratuko da.

### **3.3. ERANTZUKIZUN MAILA DESBERDINA**

Jokabide Kode honen printzipioak ulertzeko eta betetzeko betebeharra Behartutako Subjektu guztientzat den arren, badira desberdintasun batzuk bakoitzak bere gain hartzen dituen erantzukizunen arabera.

#### **3.3.1. Behartutako Subjektu guztien erantzukizun orokorra**

Behartutako Subjektu guztiek honako erantzukizun hauek bete behar dituzte:

- a) Kode honetan deskribatutako printzipioak eta arauak betetzea.
- b) Lanpostuari edo lanbideari aplikatzen zaizkion legeak, erregelamenduak eta gainerako arauak betetzea.
- c) Zalantzarik izanez gero, gomendio eta aholkularitza eskatzea hierarkiako nagusi hurrenari edo Jokabide Kode honen hedapena eta betetzea zaintzeko erantzukizuna esleitu zaionari.
- d) EKIDE GROUPEk eskainitako prestakuntza jardueretan parte hartzea.
- e) Kode honetan jasotako jokabideak betetzen ez badira edo urratzen badira, horren berri ematea.
- f) Fede onez, egin litezkeen barne kontrolak eta auditoretzak garatzen laguntzea, EKIDE GROUPen gabeziak edo ahuleziak identifikatzen eta zuzentzen laguntzeko.

#### **3.3.2. Besteen lana gainbegiratzeko eta zuzentzen dutenen erantzukizun gehigarriak**

Besteen lana gainbegiratzeko eta zuzentzen duten Behartutako Subjektuek erantzukizun gehigarri hauek dituzte:

- a) Eredu izanik lider izatea.
- b) Zintzotasunezko jardunbidearen eredu izan behar dira beren jokabidearekin.
- c) Beren erantzukizunpeko pertsonen kodearen eskakizunak ulertzen dituztela eta horiek betetzeko behar diren baliabideak dituztela ziurtatzea.
- d) Ikuskatzen eta zuzentzen dituzten pertsonen kode honen printzipioak betetzen dituztela gainbegiratzea.
- e) Fede onez kontsultak eta kezkak helarazten dizkieten langileei edo profesionali laguntza ematea
- f) Fede onez zalantzak edo kezkak helarazten dituztenek errepresaliarik jasan ez dezaten zaintzea.

#### **4. EKIDEGROUP-EN PRINTZIPIO ETIKOAK**

Behartutako Subjektuen etika profesionala da EKIDE GROUPen jardura garatzeko oinarria. Horregatik, jardura hori garatzean, Behartutako Subjektuek honako printzipio hauek errespetatu beharko dituzte:

- Pertsonaren duintasuna eta pertsonari berez dagozkion eskubideak errespetatzea.
- Pertsonen berdintasuna eta aniztasuna errespetatzea, eta sexuan, jatorri etnikoan, sinesmenean, erlijioan, adinean, desgaitasunean, kidesun politikoan, orientazio sexualean, nazionalitatean, herritartasunean, egoera zibilean edo estatus sozioekonomikoan oinarritutako diskriminazio jarrerak mespretxatzea.
- Profesionaltasuna.
- Araudia eta prozedurak errespetatzeko konpromisoa.
- Zintzotasuna EKIDE GROUPEko agenteekiko harremanetan.
- Ingurumenarekiko errespetua.
- Laneko segurtasuna eta osasuna defendatzea, modu aktiboan parte hartuz.
- Kalitatea: EKIDE GROUPEk ahalegin handia egiten du kalitatearen arloan, ekoizpena eta zerbitzuak optimizatuz eta etengabeko hobekuntza ezarritz.

#### **5. PORTAERA ARAU OROKORRAK**

##### **5.1. INTERES GATAZKA**

EKIDE GROUPI lotutako langile eta profesional orok saihestu egin beharko ditu bere interes pertsonalen eta EKIDE GROUPen interesen arteko gatazka sor dezaketen egoerak, eta ez du EKIDE GROUP ordezkatu beharko, ez eta zuzenean edo zeharka berak edo harekin lotura duen hirugarren batek interes pertsonala duen erabakiak hartu ere.

Gatazka egoeran dauden langileek hierarkiako nagusi hurrenari jakinarazi behar diote. Interes pertsonalen eta enpresa interesen arteko gatazkak beti EKIDE GROUPI dagozkion interesen mesedetan konponduko dira.

Bereziki, ezingo dira lotutako pertsonak langile, hornitzaile, bezero edo zerbitzu emaile gisa kontratatu, harremana zehazten duen modalitate juridikoa edozein dela ere, EKIDE GROUPEko administrazio organoaren aldez aurreko onespenik gabe.

## **5.2. KONFIDENTZIALTASUNA**

EKIDE GROUPEk uste duenez, bezeroen konfiantzaren oinarri nagusietako bat da haren informazioa egoki gordetzea eta informazio hori soilik kasuan-kasuan aplikatu beharreko lege xedapenetan aurreikusitakoaren arabera erabiltzea.

EKIDE GROUPEk hirugarrenen datuen konfidentzialtasuna eta pribatutasuna errespetatzen direla bermatzen du. EKIDE GROUPEk hirugarrenei buruzko datuen konfidentzialtasuna babesteko konpromisoa hartzen du, erakunde edo pertsonen emateko edo publiko egiteko betebeharrak dakarten legezko betebeharrak, administrazio betebeharrak edo betebeharrak judizialak daudenean izan ezik.

EKIDE GROUPEko langileek, beren jardura profesionalean, datuen konfidentzialtasuna gordeko dute lehen adierazitako baldintzetan, eta ez dute informazio hori modu desegokian erabiliko.

EKIDE GROUPEk bere bezeroei eta eragiketei buruz duen informazio ez publikoa konfidentziala da.

EKIDE GROUPEk arauak eta prozedurak hartu ditu, honetarako:

- Beren bezeroekiko kontratuen eta transakzioen dokumentazioa gordetzeko duten sistema informatiko eta artxibo fisikoetarako sarbideen segurtasuna bermatzeko.
- Datu pertsonalen babesari buruzko lege eskakizunak betetzeko.

Era berean, EKIDE GROUP osatzen duten pertsona guztiak behartuta daude beren jardueran dihardutela eskuratzen duten informazioaren konfidentzialtasuna errespetatzera, informazio hori EKIDE GROUP enpresarena zein beste enpresa edo erakunde batzuen izan, baldin eta beren erantzukizunengatik informazio hori eskura badezakete. Bereziki, EKIDE GROUPEko langileek debekatuta dute aurreko lanpostu batean eskuratutako beste enpresa bateko edozein informazio edo dokumentazio fisiko edo elektronikoa erabiltzea, enpresa horren baimenik ez badute.



### **5.3. JARDUERA POLITIKOA**

Alderdi politikoekin edo helburu publikoak edo EKIDE GROUPen berezko helburuetatik haratago doazen helburuak dituzten bestelako erakunde, instituzio edo elkarteekin loturarik, kideztarik edo lankideztarik edukiz gero, ondo adierazi behar da gauza pertsonala dela eta saihestu behar da EKIDE GROUP horretan inplikatzeari.

Behartutako Subjektu batek ez du inolaz ere EKIDE GROUPen funtsak edota aktiboak konprometitu edota erabiliko aukera politiko bat babesteko, ez lanpostu publiko bat lortzeko kanpaina baten testuinguruan, ezta hortik kanpo ere. Era berean, ez dute beren mende duten inor gomendatuko, ezta presionatuko ere, aukera politiko jakin bat edozein modutan babes dezaten.

### **5.4. LEGEZKOTASUNAREN ERRESPETUA**

EKIDE GROUPek indarrean dagoen legedia zorrotz betetzea eskatzen du, maila nazionalean zein nazioartean dituen jarduera eremu guztietan.

Behartutako Subjektu guztiek (i) portaera etiko egokia izan behar dute beren jarduera guztietan, eta (ii) beren lanbide jarduera zehatzari aplikatu beharreko legeak eta arauak ezagutu behar dituzte, eta, hala badagokio, beren nagusiari edo dagokionari beharrezko informazioa eskatu; halaber, zorrotz bete behar dituzte EKIDE GROUPen jardueraren barruan legez kontrako ekintzak detektatu edo, hala badagokio, prebenitu ahal izateko ezarritako protokoloak.

### **5.5. INFORMAZIOA BABESTEIA**

Behartutako Subjektu orok datuen babesari buruz indarrean dagoen legeria bete behar du.

### **5.6. ZINTZOTASUNA**

EKIDE GROUPek debekatu egiten ditu agintari eta funtzionario publikoei egindako eroskeriak, bai eta merkatuko erabileratik kanpo dauden edo, duten balioagatik, ezaugarriengatik edo inguruabarrengatik, bera partaide deneko merkataritza, administrazio edo lanbide harremanen garapena zentzuz alda dezaketen edozein motatako ordainketak, opariak, dohaintzak edo mesedeak egitea ere.

Hala, galarazita dago ustelkeria, eroskeria edo legez kanpoko komisioen ordainketa oro, edozein motatakoak direla ere, dela egiteen edo ez-egiteen ondorioz, dela EKIDE GROUPentzat onurarik lortzeko asmoz egoera mesedegarriak edo egoera irregularrak sortuz edo mantenduz.

Debeku horretan ez dira sartzen merkatuan ohikotzat edo arruntzat jotzen diren gastuak edo arretak, haien izaera, maiztasuna eta kopurua kontuan hartuta arrazoizko zenbatekokoak badira.

Nolanahi ere, kasuan kasuko unitatearen ardura duen pertsonak baimendu beharko ditu.

Jardunbide bat oso etiko den ez dakigunean edo horren gainean zalantzarik edukiz gero, uko egin beharko zaio, edo, kasua bada, hierarkiako nagusi hurrenari edo zuzendaritza arduradunari galdetu, dagokionaren arabera.

### **5.7. GARDENTASUNA**

EKIDE GROUPEk bere gain hartzen du, akziodunekiko, inbertitzaileekiko, analistekiko eta, oro har, merkatuarekiko duen enpresa portaeraren printzipio gidalerrotzat, EKIDE GROUPen, bere enpresa jardueren eta negozio estrategien irudi fidela adierazten duen informazio egiazkoa eta osoa ematea.

Horretarako, akziodunentzako balioa sortu behar da, eta kudeaketan gardena izan, Gobernu Korporatiboan egoki jardun, eta unean-unean indarrean dauden arauak zorrotz bete.

Zehazki, informazio ekonomiko eta finantzarioaren esparruan, enpresaren errealitate ekonomikoa eta finantzarioa eta ondare errealitatea zehatz-mehatz adieraziko da, oro har onartutako kontabilitate printzipioen arabera. Horretarako, Behartutako Subjektuek agintzen dute praktika hauek saihestuko dituztela:

- Kontabilitatez kanpoko euskarrietan, liburu ofizialetan erregistratu gabe, operazioen erregistro bat eramatea.
- Existitzen ez diren gastuak, sarrerak, aktiboak edo pasiboak erregistratzea.
- Kontabilitate liburuetan apunteen idazpenak egitea, objektua oker adierazita.
- Dokumentu faltsuak erabiltzea.
- Dokumentuak nahita suntsitzea, legeak aurreikusitako epea baino lehen.

Horri dagokionez, EKIDE GROUPEk urteko kontuak ikuskatu ditu, eta horrekin helburu horiek lortzen lagunduko du.

Hemen deskribatutako arauak betetzeak ez du salbuesten Jokabide Kodean jasotako gainerako arauak betetzetik.

### **5.8. LEHIA ASKEA**

EKIDE GROUPEk lehiaren defentsaren arloko legeria zorrotz betetzeko konpromisoa hartzen du. Era berean, konpromisoa hartzen du merkatuetan leialtasunez lehiatzeko, lehia askea bultzatuz eta beti indarrean dauden arau juridikoak betez.

EKIDE GROUPEk ez du parte hartuko prezioen, merkataritza baldintzen, eskaintzen, merkatuen banaketaren edo lehia aske eta irekia murrizten duen edo murriztu dezakeen beste edozein jardueraren arloan egungo lehiakideekin edo lehiakide izan daitezkeenekin egindako elkarrizketetan, akordioetan, hitzarmenetan, proiektuetan edo aliantzetan.

## **JOKABIDE ARAU ESPEZIFIKOAK EKIDE GROUP-EN HARREMANETAN**

Aurreko guztiaz gain, EKIDE GROUPEk oinarritzko jokabide arau hauek errespetatuko ditu bere harremanetan:

### **6.1. HORNITZAILEEKIKO HARREMANAK**

EKIDE GROUPEk modu etikoan eta zilegian erlazionatuko da ondasun eta zerbitzuen hornitzaileekin, eta nazioartean onartutako giza eskubideak errespetatzen dituzten enpresa jardunbideak dituzten hornitzaileak baino ez ditu hautatuko.

Hornitzaileen hautaketa eta kontratazioa unean-unean dagoen barne araudira egokitu behar da, eta gardentasunez, tratu berdintasunez eta irizpide objektibo eta haztatuaz aplikatuz egingo direla bermatu behar da.

Ondasunen erosketa edo zerbitzuen kontratazioa independentzia osoz erabakiko da, eta hautaketan erabilitako irizpideak zalantzan jar ditzakeen edozein lotura pertsonal, familiar edo ekonomiko alde batera utzita.

Behartutako Subjektu orok saihestu beharko du hornitzaileei egindako edozein ustelkeria, estortsio edo eroskeria motatan parte hartzea.

### **6.2. BEZEROEKIKO HARREMANAK**

EKIDE GROUPEk bezeroekin zintzoak izateko betebeharra hartzen du bere gain, eta beti informazio egiazkoa, argia, erabilgarria eta zehatza emango die produktuak ematean. Era berean, independentzia zainduko da beti, eta saihestuko da jarduera profesionala lotura ekonomikoen, familiakoen edo bezeroekiko adiskidetasun harremanen eraginpean egotea.

Behartutako Subjektu oro saihestu beharko du bezeroei egindako edozein ustelkeria, estortsio edo eroskeria motatan parte hartzea.

EKIDE GROUPEk, ahal den neurrian eta egoki deritzonean, Jokabide Kode honen edukiak eta printzipioak sustatu eta zabalduko ditu bere bezeroen artean.

### **6.3. AKZIODUNEKIKO HARREMANAK**

EKIDE GROUPEk konpromiso iraunkorra du EKIDE GROUPentzat balioa sortzeko helburuarekin kudeatzeko. Ildo horretan, eskatzen den eta legean aurreikusitakoaren arabera eman behar den informazio guztia emateko konpromisoa hartzen dute.

### **6.4. ADMINISTRAZIOAREKIKO, OGASUN PUBLIKOAREKIKO ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKO HARREMANAK**

Erakunde, organismo eta administrazio publikoekiko harremanetan erakundeekiko errespetua nagusitu behar da, eta lankidetzarik handinez eta legezketasuna eta haien ebazpenak zorrotz betez garatu behar dira.

Behartutako Subjektuek ezingo dute beren portaerarekin funtzionario publiko bat inpartzialtasunez jokatzeko duten betebeharra edo edozein lege agindu urratzera.

Zehazki, zergen eta Gizarte Segurantzaren arloetan, EKIDE GROUPEk unean-unean beteko ditu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, eta horretarako beharrezkoak diren kontrol eta neurri guztiak ezarriko ditu.

Era berean, dirulaguntza eta laguntza publikoen esparruan, oinarrietan ezarritako araudia bete beharra azpimarratuko da, eta horiek betetzeko behar diren kontrolak ezarriko dira.

### **6.5. GOBERNUEKIKO ETA AGINTARIEKIKO HARREMANAK**

EKIDE GROUPEk bere neutraltasun politikoa adierazten du, eta adierazten du ez dituela finantzatzen, ez zuzenean ez zeharka, ez Espainian, ez atzerrian, alderdi politikoak eta haien ordezkariak edo hautagaiak.

Jarduera politiko edo publikoetan parte hartu nahi duten langileek beren kabuz eta lanorduetatik kanpo egin beharko dute.

### **6.6. GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUA**

EKIDE GROUPEk, bere jarduera garatzen duen lurralde guztietan aplikagarri zaion indarreko legeria betetzeaz gain, nazioartean aitortutako giza eskubideak errespetatzeko konpromisoa hartzen du, tartean direla Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunean adierazitako eskubideak eta Nazioarteko Lan Erakundearen Adierazpenean ezarritako eskubideei buruzko printzipioak.

Gainera, EKIDE GROUPEk Munduko Itunaren 10 printzipioak betetzen ditu.

## **6.7. INGURUMENA**

EKIDE GROUPEk bere gain hartzen du bere jarduerak garatzean ingurumena ahalik eta gehien errespetatzeko konpromisoa, bai eta jarduera horiek sor ditzaketen ondorio negatiboak minimizatzea ere, eta bere langileen esku jarriko ditu horretarako bitarteko egokienak. EKIDE GROUPEk konpromisoa hartzen du aplikatu behar zaion ingurumen legeria zorrotz betetzeko.

Legeria ahalik eta zorrotzen betetzeaz gain, EKIDE GROUPEk konpromisoa hartzen du natura baliabideak eta ekologia, paisaia, zientzia edo kultura interesa duten espazioak kontserbatzen laguntzeko. Horretarako, jardunbiderik onenak ezarriko ditu, eta ingurumena zaintzeko behar den prestakuntza sustatuko du langileen artean.

## **6.8. KAPITAL ZURIKETAREN PREBENTZIOA**

Behartutako Subjektuek arreta berezia jarri beharko dute EKIDE GROUPEekin harremanak dituzten pertsonen edo erakundeen osotasun faltaren zantzuak egon daitezkeen kasuetan, kobrantzei eta ordainketei dagokienez.

Bereziki, arreta berezia jarriko dute eragiketaren izaeraren arabera ezohikoak diren eskudiruzko ordainketetan, eramailearentzako txeekean bidez egindakoetan edo aurrez erabakitakoaz bestelako dibisetan egindakoetan.

Halaber, adi egon beharko dute kontratuetan aipatu ez arren hirugarrenei egindako ordainketei edo hirugarrenek egindakoei, bai eta erakunde, konpainia edo pertsona jakin batekiko harremanetan ohikoak ez diren kontuetan egindakoei, edo, oro har, EKIDE GROUPEn barruan onartu ohi diren praktikekin bat ez datozenei.

Arreta berezia eskainiko die, halaber, paradisu fiskaletako pertsoneri, konpainiei, erakundeei edo kontuei egindako ordainketei, bai eta bazkidea, jabea edo azken onuraduna identifikaezina duten erakundeei egindakoei ere.

Azkenik, arreta bereziz berrikusiko dituzte kasuan kasuko akordio edo kontratuetan aurreikusi ez diren aparteko ordainketak.

Behartutako Subjektuek, Jokabide Kode honetan ezarritako bide eta prozeduren bidez, paragrafo honetan ezarritakoaren arabera irregularrak izan daitezkeen transakzioak jakinaraziko dituzte.

## **6.9. ORDAINKETEI BURUZKO ARAUAK**

Hirugarrenekin edozein akordioen ondorioz EKIDE GROUPEko sozietate bati ordaintzeko betebeharren bat sortzen bazaio, idatziz jaso beharko da, eta behar bezala deskribatu beharko da zein zerbitzu den, eta sozietate horren sistema eta prozeduren arabera dagokion pertsonaren baimena eduki beharko da.

Sozietateak egin beharreko edozein ordainketa txeki izendunaren edo banku transferentziaren bidez egin behar da, eta espresuki debekatuta egongo da eskudirutan edo eramailearentzako txeki bidez ordaintzea, hori egiaztatzen duen ordainagiririk gabe. Azken bi ordainketa modalitate horiek ahalik eta gutxien erabili behar dira.

Berariaz debekatuta dago komisioak edo beste edozein ordainketa egitea, zuzenean edo zeharka, eskaerak lortzeko edo merkataritza abantaila lortzeko. Aurrekotik salbuetsita daude Talderako jardutearen ondorioz merkataritza agenteei edo EKIDE GROUPEko ordezkari egindako ordainketak, betiere indarrean dagoen legeriaren barruan egin badira.

Era berean, espresuki debekatuta dago nazio mailako edo nazioarteko edozein organismo edo erakunde publikotako edozein funtzionario edo enplegaturi egindako edozein ordainketa, harreman administratibo batean bidegabeki eragiteko helburuarekin bada.

## **7. JOKABIDE ARAU ESPEZIFIKOAK BARNE HARREMANETAN**

### **7.1. LANGILEEN ESKUBIDEAK ERRESPETATZEA ETA LANGILEAK EZ DISKRIMINATZEA**

EKIDE GROUPEk uste du pertsonak funtsezko enpresa faktore direla, giza eskubideak eta lan eskubideak betetzea defendatzen eta sustatzen du, eta konpromisoa hartzen du enplegu eta osasun baldintzei eta lanpostuko segurtasun baldintzei buruzko arauak eta jardunbide egokiak aplikatzeko.

Konpainiako langileek lagunduko dute lan arloan aplikatu beharreko arauak zorrotz betetzen eta arlo horretako irregulartasunak prebenitzen, detektatzen eta desagerrarazten. Langile guztiak behartuta daude beste langile batzuekiko lan harremanetan errespetuzko, duintasuneko eta justiziazko irizpideen arabera jardutera, pertsona bakoitzaren kultura sentzibilitatea kontuan hartuta eta arraza, erlijio, adin, nazionalitate, genero edo beren merezimendu eta gaitasun baldintzekin zerikusirik ez duen beste edozein egoera pertsonal edo sozialengatik lanean egon daitezkeen indarkeriak, jazarpenak edo abusuak gaitzetsita, eta aintzat hartuko dira, bereziki, desgaitasunen edo minusbalotasunen bat duten pertsonen arreta eta laneratzea.

Debekatuta dago betebeharrak profesionalak behar bezala betetzea eragin dezaketen substantziak kontsumitzea.

### **7.2. LAN ESKUBIDEEN BERMEA**

EKIDE GROUPEk hitz ematen du langileei elkartzeko, sindikatzeke, negoziazio kolektiborako eta informaziorako eta kontsultarako eskubideak aitortuko dizkiela.

### **7.3. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA**

EKIDE GROUPEk laneko segurtasunerako eta osasunerako politikak hartzea bultzatuko du, eta, horretarako, behar diren bitartekoak eskaintzen ditu eta lan eremu bakoitzean dagozkion prebentzio neurriak hartzen ditu, langileei lan ingurune osasungarria eta segurua emateko, aplikatu beharreko araudiaren arabera. Horrez gain, lan arriskuak prebenitzeko eta laneko osasuna sustatzeko neurriak etengabe hobetzen saiatuko da bere jarduera garatzen duen sektore eta leku bakoitzean.

Behartutako Subjektu guztien ardura izango da osasun eta segurtasun arauak zorrotz betetzea. Era berean, arduraz erabili beharko dute arrisku jarduerak garatzen dituztenean esleitzen zaien ekipamendua, eta beren lankideen eta mendekoen artean ezagutzak zabalduko dituzte, eta arriskuak babesteko praktikak bete daitezten sustatuko. Zehatzago esanda, EKIDE GROUPEk konpromiso hauek hartzen ditu:

- Langileen garapena, prestakuntza eta sustapen profesionala bultzatzea. Enplegatuen ordainsaria eta sustapena haien merezimendu eta gaitasun baldintzekin lotzea.
- Irizpide eta arau argiak ezartzea eta jakinaraztea, kontratazio prozesuetan eta bereizketa prozesuetan, baita enplegatzailearen borondatezko aldatetetan ere, enpresaren eta enplegatuen eskubideak orekatuta mantentzeko.
- Laneko segurtasuna eta higiena bermatzea, laneko arriskuen prebentzioa maximizatzeko zentzuzko neurriak hartuz.
- Enpresako lana eta langileen bizitza pertsonala eta familia bizitza bateratzen saiatzea.
- Desgaitasuna edo minusbaliotasuna duten pertsonak laneratzen saiatzea, enpresaren eremuan laneratzeko dauden mota guztietako oztopoak kenduta.
- Langileek enpresaren gizarte ekintzako programetan parte har dezaten erraztea.

### **7.4. AKTIBOEN ETA BALIABIDEEN ERABILERA**

EKIDE GROUP osatzen duten pertsona guztiek ez dituzte EKIDE GROUPen interesekin lotura zuzena ez duten jardueretarako edo erabilera pertsonalerako erabiliko beren jarduera profesionalerako eskura jarri zaizkion baliabide finantzarioak edo ez-finantzarioak, eta, gainera, beren lana dela-eta ematen zaizkien baliabideak babesteko ardura izango dute.

Era berean, EKIDE GROUPEko zuzendariak arreta bereziz erabili behar dituzte beren jarduera profesionalean erabiltzen dituzten eta jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideek babesten dituzten aktiboak.

EKIDE GROUPEk baliabide eta tresna teknologiko eta informatiko batzuk emango dizkie zuzendariari, beren funtzioak behar bezala gara ditzaten.

#### **7.4.1 Aktiboen erabilera**

EKIDE GROUPEko pertsonen taldearen aktiboen osotasuna zaindu beharko dute beren eginkizunak betetzean, aktibo horiek zaintzeko eta balizko hartzekodunei kalterik ez eragiteko.

Horretarako, dauzkaten edo beren eginkizunak betetzean eskura dituzten aktiboak babestu eta zainduko dituzte, eta dagokien xederako egokia den moduan erabiliko dituzte. Bereziki, debekatuta dago EKIDE GROUPEn titulartasuneko edozein ondasun besterentzea, eskualdatzea, lagatzea edo ezkutatzea, baldin eta hartzekodunen aurrean dituen erantzukizunak betetzea saihesteko bada.

#### **7.4.2 Bitarteko elektronikoen erabilera**

Bereziki, gailu bakoitza erabiltzeko jarraibideetan jasotako beste arau eta debeku batzuei kalterik egin gabe, EKIDE GROUPEko langileek beren esku jarritako baliabide eta bitarteko informatikoak arduraz erabili behar dituzte, segurtasuneko eta efizientziako irizpideen arabera, legez kanpokoa edo EKIDE GROUPEko arau edo jarraibideen aurkakoa den edozein erabilera, ekintza edo funtzio informatiko alde batera utzita.

Era berean, debekatuta dago legez kanpo erabiltzen diren programak edo aplikazioak instalatzea edo erabiltzea, dagokien erabilera lizentziarik ez badute edo EKIDE GROUP edo hirugarrenen sistemak kaltetu, suntsitu, aldatu, baliogabetu edo kaltetu baditzakete.

Enplegatuek, beren eginkizunak betetzean, hirugarren baten aplikazio edo sistema informatikoan sartu behar dutenean, hirugarren horrek horretarako ezarritako erabilera arauak bete beharko dituzte, eta erabat debekatuta dago inoren sistema informatikoetara baimenik gabe sartzea.

## **8. ARAUDIA BETETZEKO BATZORDEA (ABB) ETA BETETZE PENALAREN KOORDINATZAILEA**

### **8.1. ARAUDIA BETETZEKO BATZORDEAREN OSAERA ETA ESKUMENAK ARAUDIA BETETZEKO ARAUDIA.**

Jokabide Kode hau interpretatzeko eta aplikatzeko erantzukizunik handiena EKIDE GROUPEko administrazio organoak izendatutako kide anitzeko organo bati dagokio. Araudia Betetzeko Batzordea deitu zaio organo horri (aurrerantzean, "ABB").

ABBak hiru (3) osagai izango ditu, hauek: (a) EKIDE GROUPEko administrazio organoak (edo hura ordezkatzeko duen pertsona fisikoak) hautatutako kide bat, presidente izango dena, (b) EKIDE GROUPEko zuzendari nagusia eta (c) Giza Baliabideen arduraduna.

ABBak beharrezkotzat jotzen dituen barne antolamenduko neurriak hartuko ditu, behar bezala eta arauen arabera funtzionatzen duela bermatzeko, eta, oso bereziki, batzordearen bileren deialdiari eta bilerei beraiei buruzkoak, egiten diren bileren aktak egiteari buruzkoak eta



dokumentazioa artxibatzeari eta zaintzeari buruzkoak.

ABBak eginkizun hauek hartzen ditu bere gaien modu eksklusiboan:

- a) Jokabide kode hau betetzen dela zaintzea, kodearen ezagutza sustatuz eta kodearen arauak interpretatuz, bai eta horren inguruan sor daitezkeen zalantzak edo arazoak ebatziz ere.
- b) Administrazio organoari erregularatasunez jakinarazteko betebeharra.
- c) Delituak prebenitzeko kontrol sistemak ezartzea, bai eta sistema horien funtzionamendurako behar diren arauak eta prozedurak ere.
- d) Kontrol horien funtzionamendua zaintzea, aldizkako berrikuspenen bidez eta detektatutako hobekuntza proposamenekin betetze txostenak eginez.
- e) Barruko Salaketa Kanalean aurkezten diren salaketak ezagutzea eta izapidetzea.
- f) Zigor arloko prestakuntza planak diseinatzea, beren eginkizunak betetzean Behartutako Subjektu direnentzat.
- g) Behartutako Subjektuentzat ezarritako komunikazio kanalen funtzionamendu egokia kudeatzea, Jokabide Kodearekin zerikusia duten gaitan.
- h) Behartutako Subjektuek jasotako komunikazioak ebaluatzea eta bideratzea, kasuan kasuko unitateek ebatzi ditzaten.
- i) Behartutako Subjektuen artean Jokabide Kodearen ezagutza sustatzea.
- j) Hartutako erabakiak benetan betetzen direla kontrolatzea, eta kasu bakoitzean egokitzen diren neurri zehatzaileak eta zuzentzaileak proposatzea.

Era berean, ABBak jarraipen eta gainbegiratze eskumenak hartuko ditu bere gain, gai propio edo orokor horietako edozeini buruz etorkizunean eman daitezkeen araudiei dagokienez.

## **8.2. BETETZE PENALAREN KOORDINATZAILEA**

EKIDE GROUPEko zuzendari nagusia izango da Betetze Penalaren Koordinatzailea, eta, bere eginkizunak betetzeko, gaien adituak diren aholkulari juridikoak eta horretarako behar diren bitartekoak erabili beharko ditu.

Hauek dira Betetze Penalaren Koordinatzaileari dagozkion eginkizun zehatzak eta aldian-aldian Batzordeko gainerako kideei jakinarazi beharko dizkienak:

- a) EKIDE GROUPEko zuzendari eta administratzaileen esku jartzea aholkularitza juridikoa (gaian aditu juridiko direnen bitartez), ondorio penalak izan ditzaketen erabakiak hartzerakoan.
- b) Jokabide Kodea aplikatzeko eta ABBak hartutako erabakiak betearazteko beharrezkoak diren neurrien koordinazio operatiboa.
- c) Kode honetan jasotako arauen eraginkortasunaren jarraipena egitea, zigor arloan eragina izan dezaketen alderdiei dagokienez, bai eta kode hori hobetzeko proposamenak egitea ere, arrisku berriak hautematen direnean. Horretarako, logikoa denez, gaian adituak diren aholkulari juridikoetara jo dezakete.
- d) Delituak prebenitzeko sistemak ezartzea EKIDE GROUPen barruan, merkatuko ohiko jardunbideen arabera, eta horien eraginkortasunaren jarraipena egitea.

## 9. JOKABIDE KODEAREKIN LOTURA DUTEN GAIEI BURUZKO KOMUNIKAZIORAKO PROZEDURA OROKORRA

EKIDE GROUPEk komunikazio prozedura berezi bat du ("**Salaketa Kanala**"), Behartutako Subjektu guztiek modu simple eta konfidentzian komunikatu ahal ditzaten beren jakintza eta ulermen leialaren arabera Jokabide Kodearen edo aplikatu beharreko beste edozein araudiren arabera desegokiak diren jokabideak edo jarduketak. Halaber, Behartutako Subjektuek prozedura bera erabil dezakete zalantzak kontsultatzeko edo EKIDE GROUPen Kode honen xede diren gaietan dauden sistemetan hobekuntzak proposatzeko.

ABBAk irizpideak eta prozedurak ezarriko ditu Salaketa Kanalaren bidez jasotako informazioa kudeatzeko, bereziki EKIDE GROUPen erantzukizunarekin lotutako betetze penaleko programari dagokion guztian. Behartutako Subjektuek Jokabide Kodearekin zerikusia duten gaiei buruzko komunikazioak bidali ahal izango dizkiote ABBari, konfidentziasunez, fede onez eta errepresalien beldurrik gabe, Salaketa Kanalaren bidez, honela:

- Salaketa Kanal elektronikoa: [compliance@ekide.es](mailto:compliance@ekide.es)
- ABBari zuzendutako posta, helbide honetara: Araudia Betetzeko Koordinatzailearentzat. Telleria kalea 2, 20.500 Arrasate (Gipuzkoa).

Salaketa Kanalaren bidez jasotako komunikazioak modu konfidentzian tratatuko dira; beraz, konfidentziasun hori uneoro bermatzeko ezinbestekoak diren prozedura eta antolaketa neurriak ezarriko dira. Hala ere, jasotako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko, salatzailea argi eta garbi identifikatuta egiten diren salaketak baino ez dira onartuko. Salaketa anonimoak onartuko dira soilik zigor arloko penalen kontrako gertakarien zantzu edo froga argiekin osatzen badira.

Komunikazioa ABBko lehendakariak jasoko du, eta komunikazioa aztertu eta ebaluatu ondoren, ABBko gainerako kideei jakinaraziko zaie, eta horiek, beren irizpidearen eta kasuen arabera, hau erabakiko dute:

- a) Onargarria den ala ez, eta hala badagokio, komunikazioaren xede den gaiak arduratzen den EKIDE GROUPEko departamentura bidaltzea.

Nolanahi ere, hartutako erabakiaren berri emango zaio jakinarazleari.

Esandako departamentuak arretaz izapidetuko ditu dagozkion komunikazioak, eta emaitza eta berak proposatzen duen jarduketa jakinaraziko dizkio ABBari; izan ere, proposamen hori onartzea eta aplikatzea beti ABBari dagokio.

Presidenteak komunikazioa onargarria dela eta komunikazioaren gaia ABBaren eskumenekoa dela erabakita, ABBak berak, kasu bakoitzean bidezkoak diren ikerketak eta egiaztapenak egin ondoren, eta, hala badagokio, lehen aipatutako departamentutik jasotako jarduera proposamenaren ondoren, dagozkion ebazpena hartu beharko du, eta hura betetzen dela bermatzeko beharrezkoak diren neurriak proposatu.

Deskribatutako prozedura eta aipatutako komunikazio kanala integratzaileak direnez, bakarrak dira gai guztietarako eta EKIDE GROUP osorako, eta, beraz, aplikatu beharrekoak izango dira, halaber, irregulartasun hauek jakinarazteko: (i) informazio finantzarioa emateko prozesuan garrantzia izan dezaketen irregulartasunak; (ii) diskriminazio egoeren, laneko jazarpenaren eta sexu jazarpenaren prebentzioaren arloan edo lan esparruko beste edozein diskriminazio, jazarpen edo larderiaren arloan gertatzen direnak; (iii) delitu izan daitezkeen portaera susmagarriak antzematean, prebenitzean eta salatzean gertatzen direnak, eta (iv) legez kanpokoa den edo beste edozein modutan EKIDE GROUPEn politikak eta balioak urratzen dituen edozein jokabide.

Azkenik, adierazi behar da EKIDE GROUPEk formalki ezartzen duela ez duela onartuko jokabide irregularrak komunikatzeko ezarritako prozedurak erabiltzen dituzten pertsonen gainean egindako errepresaliarik.

Kanal etikoa egoteak ez du eragotziko garrantzi potentzialeko irregulartasunak jakinarazi ahal izateko egoki iritzitako beste edozein mekanismo.

## **10. ZEHAPEN PROZEDURA**

Kode honetan aurreikusitako edozein arau ez betetzea desobedientziako hutsegitea izango da, aplikatu beharreko lan legerian edo hitzarmen kolektiboan zehaztutakoaren arabera.

EKIDE GROUPEko kide den inork ez du baimenik Jokabide Kode honetako jarraibideak eta xedapenak ez betetzeko, ezta hierarkiako nagusi hurren baten aginduari erantzuteko ere.

Kode honetako arauak betetzen ez badira, aplikatu beharreko legeriaren arabera dagozkion zehapenak aplikatuko dira.

ABBa da Kode hau ez betetzeagatik dagokion zehapena bideratu eta Giza Baliabideen Zuzendaritzari proposatzeko eskumena duen organoa.

Instrukzioa eta zehapen erabakia idatziz jasoko dira, arrazoituta, egitateei eta oinarriei dagokienez, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Behartutako Subjektu bati ezin izango zaio zehapenik jarri alde aurretik entzunaldia eman gabe eta egokitzen jotzen dituen frogak eta alegazioak aurkezteko aukera eman gabe.

Aurreko horrek ez dio kalterik egingo aplikatu beharreko legerian xedatutakotik eta kasu bakoitzean eska daitekeen erantzukizun zibil edo penaletik erator daitekeen arau hausteari.

## **11. INDARRALDIA**

Jokabide Kode hau 2021eko apirilaren 1ean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du administrazio organoak (organo horri ere egokituko zaio kodea betetzetik salbuestea) eguneratzea, berrikustea edo indargabetzea onartzen ez duen bitartean.

Jokabide Kode honek edo bere edozein eguneratzek edo berrikuspenek EKIDE GROUPEkin egindako lan edo merkataritza kontratuen baldintzak aldatu edo osa ditzaketan neurrian, berariaz onartu beharko dira kontratuetan, eta onarpena idatziz jaso.